

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Maiatzak 17, 64. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

JOSE MANUEL AGUD:  
"HIESa denori dagokigu"

Zer karrera  
aukeratu?



**MODELO**  
**BERRI-BERRIA**  
**MUGARRI**

# Adi ATBren

# ikusle!

# 22.

k a n a l e r a  
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzan zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE TELEBISTA

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea eta harpidetak:**  
Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Eukeni  
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo  
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo  
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,  
Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalataikoan.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 7.000 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzen erantzunkizunik.



## Heriotze zigorra

Gurearen gisako gizarte batek, zerta-  
ra datozen zalantzan ipin daitezkeen  
mekanismo batzuk ditu, seguru asko  
horien izatezko arrazoia zein den ere  
eztabaida litekeelarik. Mekanismo ho-  
rietako bat heriotze zigorra dugu, mundu  
osoan uste baino hedatuago dugun zigo-  
rrik haundiena. Estaturik behartsuenetik  
zibilizazio garatuenera, euren zigor-  
kodeetan heriotze zigorra ontzat ematen  
duten herriak erruz aurki ditzakegu.

Nik ez dut inoiz ulertu ahal izan nola  
gizaki batzuek epai dezaketen kidekoren  
bat eta, ondorioz, zigor kapitala ezartzen  
dioten. Eta ez dut ulertzen, zinez diot,  
edozein gizakiren psike eta bizipen-  
izkutuak besteentzako zeharo ulertezi-  
nak gerta daitezkeelako. Izatez, zeinek  
aitor dezake bere erreakzioak  
kontrolatzeko gai dena? Nola, beraz,  
bilaka gaitezke besteen epaile? Inoiz ez  
diot galdera horiei erantzunik eman ahal  
izan.

Bestalde, hazi ninduten kristau dotri-  
nak bestelako bideak erakutsi dizkit,  
gizonen arteko harremanetarako. Nik  
gogoratzen dudanez, behintzat, bostgar-  
ren manamenduak inoren biziaren kon-  
trako ekintza galeratzen du. Beraz, hazi-  
ale horren eraginak heriotze zigorra  
atentaturik ilogikoentzat hartu behar  
dudalako ustea gorpuztu du nigan.

Baina ez pentsa, inoiz nire baitatik  
alderantzizko nahi bortitzik igaro ez  
denik. Beste edozein bizipenetan bezala,  
heriotze zigorrak ezar diezadakeen eri-  
tziaren balorea batzuetan traizionatu  
dudala aitortu behar dut. Gizona gizon  
denez geroztik, eguneroko ogia dugu era  
guztietako aberrazioen berri izatea. Gi-  
zonak gizona otso: horixe dugu erreali-  
tate gordina. Eta, nor ez da erori noizbait  
heriotze zigorra desiratzeko tentaldian?  
Lege aditu, filosofo, soziologo,  
historigile, idazle, abade, militar... hots,  
gizarteko espektru zabalak hain ideia  
kontrajarriak azaltzen dituenean, nork  
esan dezake ez duela behin edo behin  
oreka galdu?

Ez dut uste heriotze zigorra ezere-  
n panazea denik. Are gutxiago, gizarte-  
ren kontraesanei balazta ipiniko dienik.  
Hain zuzen ere, heriotze zigorra kon-  
traesanik itzelentzat daukadalako. Nola  
ulertu, bestela, heriotze baten ordaina  
beste heriotze batez egin behar izatea?  
Ez dut sinesten gizonen infalibilitatean,  
eta jarrera horrek eragozten dit biziaren  
kontrako erasoak onestea. Dostoievski-  
rekin bat egiten dut: "Gizakia misterio  
hutsa dugu; deszifratu behar da eta aha-  
legin horretan bizitza osoa ematen badu-  
zu ere... ez duzu astia alperrik galdu".

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**baldana**

- Medikuntza orokorra
- Txertaketak
- Kirurgia
- Laborategia
- X izpiak
- Odontologia
- Ile apaindegia

**URGENTZIA 76 27 97**

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.  
Tfnoa: 76 27 97  
**BERGARA**



**Josteko**

**OHALAK**

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
**ARETXABALETA**

**Bestea aurrean hartu eta norberaren burua zuritzen**

Gipuzkoako Diputazioari kritika gogorra egin nahi diot. Orain ere ederra sakatu nahi digute zera esanez:

Beraiek prest daudela aurten Zetetik Kanpantzarrerako bidea egiten hasteko, baina arazoa bizkaitarrena dela diote, Elorriotik Kanpantzarrera bitartekoari buruzko azterketa bukatu gabe omen bait dute.

Horrexegatik gure Diputazioak, lastimaz, besteren erruz hasi gabe egon beharra omen dauka. Baina ulertzen ez duguna zera da, Arrasateko saihezbidea hasi zutela 3 urte betetzera doazelarik (eta oraindik bukatu gabe premia ederra egon arren), Diputazioko potoloei ez dietela ajola, eta muturra sartzen beste leku batetara doazela.

Hobe izango lukete hitz gutxiago egitea eta lanaren bitartez gehiago erakustea!

Eta noizko Garagartzatik Gesalibarrerako bidea konponduta?

Ez dute lotsarik.

*Orixol*

**Euskaldunak edo...**

Franco diktadorea lurreratu eta hilabete gutxira, Arrasateko "taberna" batean, iparraldetik etorritako ikasle talde bat hamarretakoa jan eta txurrutadak edaten ari ziren, eta bitartean mostradorean, arrasatear bi, irakasleak, elkarrizketan. Sartu tabernan agurtu eta ostean galdetzen diot (nire laguna zen bat), nongoak dituk gazte taldea, eta erantzun zidan vasco-frantsesak. Nik lagunari, hi orduan vasco-españolak izango haiz. Hasarre bizian erantzun zidan, españolak heu izango haiz.

Euskal Herriko euskal kontzientziak, uste dut, oraindik horrela jarraitzen duela. Iratzartzeko.

Euskaldunak gara askotan euskararen zapaltzaileak. Gutxi balioko digu, umeak Ikastolara bidali, euskara ikasi eta gero, erdaraz hizketan ari bagara.

Hor nonbait irakurri dut:

Gure helburua ez da izan beharrikasleek euskara hitzegin, irakurri eta idatzi ahal izan dezaten, egin dezaten baizik.

*"Torrekua"*

**Desafioa Besaideri**

Arrasate Press bide dugula, ASA taldekoek Besaideko "oilokumeei" desafioa bota nahi diegu.

Maiatzaren 26an atsaldeko 4.30etan Santa Agedako futbol-zelaian edo beste batean, Zaldibarren, futbol partidua jokatzeko; 8 partidetako taldeak.

Ah! eta granpoiak eta pioletak etxean utzi.

Erantzun!!!

*ASA taldea*

**Noizko erakustoki egokia**


**Arrasaten**

Arrasaten azkenaldian, erakusketak ugari egiten da. Batean, argazki erakusketak, hurrengoan fosil erakusketak... Ekimen hauek oso ondo ikusten ditut, besteak beste Arrasaten zer egiten den ikusteko aukera ematen dutelako eta gure kultur maila aberasteko balio dutelako.

Edonola ere, argi egokirik ez duela, zolu leunaren ordezkari hezurak dituela, Monterron al da erakusketak egiteko lekurik proposena?

Bada garaia erakusketak egiteaz gain, erakusketak horiek egiten diren baldintzez arduratzeko.

*Zorione B.*




# UBI ikasi ostean, Unibertsitatera sartu ahal izateko egiten diren frogei zer deritzezu?



**Marilu**  
(langilea)  
Nire ustez ez lirateke egin behar. Balio ez duten frogak dira. Lehenago egin dituzte makinatxo bat ikasketa jakiteko balio duten ala ez.



**Jose Manuel**  
(langilea)  
Nire ustez ez lirateke egin behar. Traba bat gehiago dira; balio ez baldin badute kurtsoan zehar ikusiko da hori.




**Elias Garcia**  
(langilea)  
Nik ez dut izan ikasteko aukerarik eta nire ustez denek izan behar. Lukete ikasteko aukera eta aprobetxa dezatela.



**Amaia Arroiti**  
(ikaslea)  
Ez dut uste egin behar direnik. Nire ustez gehiegi eskatzen dizute. Ikasturtean zehar ikusiko da zer egin dezakezun.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



### BADAUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Previasa, Adeslas (Muface) eta partikularrak)

Kontsulta arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14. ARRASATE

## Memesa

### 79 42 22

## KAJCI TABERNA

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTZAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------

**18 OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Paseando a Miss Daisy". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Paseando a Miss Daisy". 10.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

**19 LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Paseando a Miss Daisy". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Haz lo que debas". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- AEK eguna:
  - txafleroak eta dultzaineru edo trikitilariak. 11etan.
  - Portaloian eta Seberon, 12etan.
  - Euskal Herriko mapa lurrean margotu.
  - Hakapaloak.
  - Txalaparta.
  - Trikitilariak.
  - Poteoa trikitilari eta hankapaloekin. 13etan.
  - Herri Bazkaria, Monterronen, 14.30etan.
  - Herri jokoak, 17etan.
  - Bertso saioa, 18.30etan.
  - Rock jaialdia, Eskoriatza, Anjollillo eta Su ta Gar taldeekin. Gaueko 10etan Monterronen.
  - Rock jaialdia: Bergarako Txibiston, "Nepalm Death" eta "Anestesia" taldeak. Gaueko 11etan.
- Antzerkia: "La cantanten calva" antzeslana ikusteko aukera, Oñatiko Santa Ana antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

**20 IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Paseando a Miss Daisy". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Paseando a Miss Daisy". 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Aretxabaletan, Otalazelai eguna. Egunpasa eta erromeria.
- Getxoko antzerki eskolak, "Chicago años 30" laburmetraia errodutuko du arratsaldeko 7etan Eskoriatzan.
- Antzerkia: "Kixka" taldearen eskutik, "Noiako Zirrara" antzeslana ikusteko aukera, Oñatiko Santa Ana aretoan, arratsaldeko 5etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

**21 ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Paseando a Miss Daisy". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Paseando a Miss Daisy" 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Espafiol. San Andres.

**22 ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Paseando a Miss Daisy". 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakota.

**23 ASTEAZKENA**

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

**24 OSTEGUNA**

- Zinea: Alai:
- Zineklub: "Eligeme". Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

**ERAKUSKETAK**

- Imanol Morenoren, grabatu eta pintura erakusta. Etxe-Aundin, hilabete honetan zehar.

**IRTEERAK**

- Besaide Mendizale elkarteak eta Murruxok antolatuta, Degurixan zabor garbiketa. Maiatzaren 20ean.

**LEHIAKETAK**

- Baztandarren biltzarra 1990 iragarriko duen kartel lehiaketa. Oinarriak eta informazio gehiago Arrasateko Udalaren Gazte Zerbitzuan. Tfnoa: 79 09 00.



## SAN VIATOR IKASTOLA 1990-91 IKASTURTEA

Batxilergorako aurrematrikula egiteko epea zabaldu dugu: maiatzaren 15etik 30era

✓ **ESKAINZA ZABALA BATXILERGOAN**

- Batxilergo Orokorra (1. eta 2. mailak)
- Goi Batxilergoa (3. eta 4. mailak)

✓ **LANBIDE MODULOAK (Berriak)**

- Bizigiro Osasunezko Lanbide Moduloa
- Gizarte-kultur Ekintzaile Lanbide Moduloa


✓ **EZAUGARRIAK**

- Maila guztietan euskarazko eta erdarazko adarrak.
- Batxilergo Orokorrean adar elebiduna.
- Kirol Eskola: era guztietako kirolak, monitore bereziturekin
- Jantokia.
- Orientazio prozesu jarraitu eta sakona.
- Erreforma prozesuan aintzindari.

"Euskal Herriko Ikastolarik gazteena"

1.500 pta.gatik (afari merke bat)  
1991ren bukaerako 6 zenbaki  
euskararen egoera soziala  
*Jazten* joateko  
**ANIMA ZAITEZ!**

# Jazten



Izen abizenak.....  
Helbidea.....  
Herria..... Tfnoa.....  
Banku edo Aurrezki Kutxa zenbakia.....  
Sinadura

Bidali harpidedun txartel hau Arrasateko 158 Postakutxara



“ Arrasateko herria zoriondu nahi dut. Duela urte batzuk ni hemen bizi izan nintzen, eta badakit orduan ezinezkoa zela hitzaldi bat euskara hutsean ematea. Arrasatearrak harro senti daitezke, AED, Arrasate Press, ATB, etab. bezalako ekintzekin, euskarari merezi duen prestigioa ematen ari direlako”

*(Jose Mari Goikoetxea, Elkar diska-argitaletxeko arduradunak, Monterronen)*

“ Euskal Herrian hainbeste rock talde egotea, gizarte gatazkatsu eta erresistente baten islada baizik ez da. Bestela ezin da ulertu, hain baldintza txarretan jendeak musikaren munduan aurrera egitea.

(...)Azken zortzi urteotan beti talde berberei eskaintzen digute diskak grabatzea. Argitaletxeak ez dira batere ausartak, eta gainera ez dute talde berrien segmenturik egiten”

*(Josu Zabala, Hertzainak taldeko partaideak, Monterronen)*

“ Kooperatibismoa batzuentzat une konkretu batean debekaturik zeuden bestelako aukera politikoa eta ideologikoen ordezkaria izan da. Pertsona batzuentzat urrutira doan zerbait bihurtu da, gure kolektiboentzat gauza apala, erraza eta xeheagoa den bitartean. Lanpostu bat da, parte hartzeko aukera, etab.

Nire ustez beharrezkoa da eremua zentratzea, ez kooperatibei ez eta kooperatibismoari ere, eman ez ditzaketen gauzak eskatzea; jakin kooperatibak enpresak direla eta Antolamendu Demokratikoaren Printzipioa enpresa-eremuan mugitu eta eztabaidatzen, bestelako berezitasunik eskatu barik”.

*(Iñaki Gorroño, LKA-ko inbertsioetarako zuzendariordeak, TU Lankiden)*

Eraikuntza baten proiektua egitean zein erizpide erabiltzen duzu, Udala auzoko Ingurugiro Eskolan adibidez?

Lehenik eta behin enkargua nolakoa izan den hartzen dut kontuan, zer egin nahi den. Beharrik kontuan hartu, zertarako erabiliko den eraikuntza, bezeroaren ideiak eta helburuak, diru mugarik dagoen ala ez, etab. eta azkenik, epeak. Hasierako hau askotan ez da izaten oso erreala. Bezeroak zoruan egurra jarri nahi izan dezake, baina beharren arabera beste materiale bat egokiago izan daiteke.


Ondoren, eraikuntzaren datuak hartu beharko dira. Normalean nik neuk hartzen ditut datuak. Baldintza urbanistikoak, zerbitzu sareak, ura, telefonoa, etab. nolakoak diren inguruan zehazki jakin beharko dugu.

Aurrekoa egin ondoren, eraikuntzaren barrukaldeko banaketa egingo dugu. Egoitza nagusiak zeintzuk izango diren eta gela horien erabilera kontuan izanik, etxearren barruko banaketa egiten da. Udalako Ingurugiro Eskolaren kasuan, pasiloak estutu egin ditut, haurrak erabiliko dutenez, komunak irteeratik gertu jarri ditut. Hasierako antolaketa egingo dugu. Lortu nahi den argitasuna, giroa etab. kontuan izanez.

Edonola ere, barruko banaketa fatxadenarekin bat etorri beharko da. Udalako kasuan, gelen argitasun beharra dauden leihoeekin konpondu behar izan dut.

Azkenik, egindako proiektua bezeroarekin eztabaidatuko duzu. Behar bada egindakoa ez zen bezeroak nahi zuena eta ados jarri beharra dago. Jasotako datuen erabera garatuko dugu proiektua. Dena ahalik eta zehatzen egin behar da, ondoren lana zuk nahi duzun bezalakoa izan dadin.

*Xabier Gallastegi  
Apailaria*



## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

*Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!*

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik**

**Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate**





San Viator Ikastolako Ortzadar taldea

## Arrasateko hiru talde

### Euskal Herriko Haur Kantarien txapelketako finalera

Joan den larunbatean, Oiartzungo Madalen Soro pilotalekuan Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketako finalera joateko Gipuzkoa mailako kanporaketajokatu zen eta Arrasateko hiru talde klasifikatu.

Gipuzkoko kanporaketan parte hartu zuten hamaika taldeetatik epaimahaiak San Viator ikastolako *Ortzadar*, S. F. Xabier ikastolako *Txorrotxio* eta Oiartzungo *Haurtzaroko Kalamidadeak* haur-taldeak

aukeratu zituen finalera joateko.


Pilotalekura hurbildu ziren entzuleek Arrasateko San Viator Ikastolako *Ipotxak* taldea aukeratu zuten finalean parte hartzeko.

Ortzadar taldearen zuzendaria Goio Eskibel, Ipotxak taldekidea M<sup>a</sup> Pilar Fernandez eta Txorrotxiokoa Gurutze Uribarren ditugu.

Euskal Herriko finala hil honen 26an izango da Donibane Lohitzunen. Zorte on denontzat!

### Imanol Morenoren obra *Etxe Aundin*

Hilabete honetan Oñatiko Etxe Aundi aretoan Imanol Moreno arrasatearraren pintura eta grabatu lanak ikusteko aukera izango dugu. Imanol Moreno Arte Ederretan lizentziatua da eta gaztea izan arren, dagoeneko zenbait sari irabazi ditu. Euskal Herrian zein Estatuan eginizari ditu bere lanen erakusketak.



## NUTRISAN

**NUTRIZIO, OSASUN ETA KIROL MENDIKUNTZAKO ZENTRU MEDIKOA.**

Zatoz gugana, amesten duzun gorpuzkera berreskuratu eta behin-betirako mantentzeko.

- Dieta personalizatuak eta azterketa metabolikoak
- Zelulitiaren tratamendu medikoa.
- "Kirol-gimnasiako" mahaia.
- Elektroeskultura.

Arduradunak:

**Telleria Dka., Serrano Dka. eta El Busto Dka.**  
(Dietetika eta Nutrizioa Bordeleko Unibertsitatea)

Kale Aldea 11, etxabehea, Arrasate Tfnoa: 79 65 78



### ETXE-AUNDI

Dastapen-menua  
maiatzaren 25erako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
  - Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
  - Txahal-solmoa espinaka gainean Rossini saltsaz
  - Errekako amorraina ziap-sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
  - Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz
- 2.900 pzta BEZ bame

Torre Auzo 9, Thoa: 78 19 56  
OÑATI

### San Juanetan etxean

Arrasateko Udalak, urtero garai honetan bezala, soldadutza egiten ari diren arrasatearren senide eta adiskideei dei egiten die euren helbidea eta eskutitzak zuzendu behar zaizkien nagusien izen-abizenak emateko. Izan ere, Arrasateko Udalak, eskutitz bana bidaltzeko asmoa du, jaietarako baimen berezia eman diezaieten eskatuz. Datuak ekainaren 15a baino lehen zuzendu behar dira Udal Idazkaritzara.

### Aiton-amonei omenaldia

Ekainaren 24ean Arrasateko Udalak herriko aiton-amonei eskainiko dien omenaldian parte hartu nahi dutenek, Udaletxeko Idazkaritzan eman beharko dute izena ekainaren 15a baino lehen. Izena emateko nortasun agiria aurkeztea beharrezkoa izango da.

### AEDren tonbolaren zozketa

AEDk Musakolako jaietan izan zuen tonbolako zozketaren zenbaki sarituak honako hauek izan ziren:

Garbigailua: 2113; "mutilservice" bateria: 2949; tostadorea: 2398; "supermix" irabiagailua: 2154 eta irristola: 2214.

### Ganaduzaleentzako hitzaldia

Mendi publikoetan ganaduak larreratzeko arauak direla eta, hitzaldi informatiboa izango da hilaren 24ean Gatzagako Kultur Etxean arratsaldeko 8etan, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Gatzagako baserritarrei zuzendua. Deba Garaian ganadua mendi publikoetan larreratzen dutenei zabaltzen zaie deia.



## Herriko musika-irakaskuntza

*Maiatzaren 25eko Osoko bilkuran behin-betiko argituko*

Hilaren 25ean Arrasateko Udalak egingo duen osoko bilkuran erabakiko da herriko musika-irakaskuntzaren etorkizuna. Asteleheneko Gobernu-Batzordean gaia eztabaibatu zen eta Musika Irakaskuntzaren Kontseilu Aholkulariko partaideak bileran egon baziren ere, alderdi politiko desberdinek ez zuten inolako akordiorik lortu. Alderdiok hamar eguneko epea dute orain, euren jarrerak aztertu eta akordioaren bat lortzeko.

Alderdi politikoeak bi jarrera nagusi agertzen dute, zentruaren titularitatea delarik desadostasun puntua. HB eta EEK Hasiera Mailako Udal Kontserbategia nahi duten bitartean, PNV eta EAK ez dute musika-irakaskuntza Udalaren menpe jarri nahi eta Udalaren laguntza izango duen Erdi Mailako zentrua-

ren alde azaldu dira.

Edozein modutan, garbi dago Arrasate Musikali irtenbidea eman nahi zaiola, dagoeneko urtetan pila-tu duen defizita Udalak bere gain hartu du eta.

HB eta EEK defendatzen duten aukeraren arabera, Udal Kontserbategia patronato edo antzeko batek gestionatuko luke, kirol-arloan AUKEA den antzeko baten bidez.

PNV eta EAK aldiz, Udal Kontserbategia eginez gero, Udalaren plantila ikaragarri handituko dela eta honek Udalari arazo ugari ekar diezaiokeela uste dute.


Jarrerak beraz, garbi daude eta PSOEek har dezakeena erabakiorra izan daiteke. Alderdi politiko honek jarrera garbirik azaldu ez badu ere, badirudi Udal Kontserbategiaren aldekoa dela.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu  
Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Jose Antonio Muruamendiaraz



Merkatuak segituko du

## Merkatu plaza bai, baina...

### Dagoen merkatua egokitu behar

Jose Antonio Muruamendiaraz-ek egingo du Udalaren enkarguz oraingo merkatuaren bideragarritasun-txostena.

Jose Antonioren ustez oraingo azoka ezin da itxi, ezta berria egin ere, garestiegia izango litzatekeela. Hala ere, azoka honek badu etorkizunik, baldin eta oso garesti izango ez liratekeen zenbait berrikuntza egingo balira: jakiak sartu eta ateratzeko bideak egokitu, goiko etxeen seneamenduak desbideratu, higiena bermatzeko neurriak hartu, etab. Udalak urtero hiru bat milioi inbertitu beharko luke azoka egoera onean izateko.

Azokak baditu arazo batzuk. Saltoki finakoak dituztenek oso gutxi ordaindu dute orain arte -5.400 pta./m<sup>2</sup>, urteko- ingurukoekin gonbaratuz gero; beraz pentsa, liteke pre-

zioak igo egingo direla. Saltoki horietan ere desoreka nabarmena dago: 7 harategi dauden bitartean, fruitu eta barazkietarako ez dago bat ere.

Guzti honek ez du Jose Antonio bildurtzen. Egokituz gero, merkatal plaza hau oso egokitzat jotzen du. Joan den ostiralean goizeko 5.45etan azokan zegoen, goiz osoa han eman zuelarik. Bere ustez, 3.000 pertsona baino gehiago sartu zen jeneroa erostera eta ehunen bat inguru lanean ari ziren. Beraz, baikor dago.

Ez du denbora larregirik, ordea. S. Juanetarako azoka erregulatuko duen araudia aurkeztu behar du Udaletxean; uztailaren azken astearako egin behar denaren txosten osoa aurkeztu. Udalak onartzen baditu, urtea amaitu orduko azoka plaza berriztua martxan jarri beharko litzateke.

## Usteak uste...

Zenbat buelta eta errebuelta eman behar izan genituen asteazkenean HIESaz Arrasate Telebistan antolatutako genuen *Zenbat buru hainbat aburu* mahaingurua osatzeko!

Bi astebete lehenago, telefonoz elkarrizketa luzeak izan ondoren, bagenekien nortzuk etorriko ziren. Hiru aditu eta arrasatear bat. Ez genuen programa edozelan planteatu gura eta gaiak behar zuen seriotasuna eta argitasuna eskaini nahi genuen.

Bapatean, halabaina, gure espezialistak ikaratu egin ziren, jendeaurrean sarri askotan berba egin izan arren, ez bait ziren HIESaz euskaraz hitz egitera ausartzen, telebista kamaren aurrean. "Aizu, nik ez dakit nola esaten den 'penetración anal' euskaraz eta begira, edo erdaraz bezain zehazki hitz egiten dut edo ezer ez" eta horrelakoak entzun genituen.

Kuriosoena hauxe da, arrazoi osoz, jende honek berebiziko garrantzia ematen diola prebentzioari, HIESari aurea hartzeari. Prebentzioak, ordea, informazioa eskatzen du nahitanahiez eta hiru hizkuntza ofizial dituen herri honetan geroz eta garbiago geratzen ari da gaztelaniaz eta frantsesez. HIESari buruzko nahi adina informazio har dezakegun bitartean, euskal ikusleak mila traba izango dituela telebistaz gai horretaz behar bezalako tratamendu informatiboa jasotzeko adituen ahotik, aditu euskaldunek eurek jarritako eragozpen eta oztopo txatxuak medio.

*Joxe Aranzabal*

# Oihana lorategia

Arrasate pasealekua 8, Tfno. berria: 77 14 56

# Bergaran, Jardun taldea sortu

## Euskararen erabilera bultzatzeko talde berria

Bergaran, *Jardun*, euskararen erabilera bultzatzeko taldea sortu berri da. Bergararrak euskaraz bizi daitezzen behar den giro eta baldintzak sortzea eta horretarako behar diren bitarteko eta ekintzak bultzatzea dira *Jardunen* helburuak.

*Jardun* taldea sortzeko arrazoia, Bergaran euskarak bizi duen egoera penagarria izan da. Egin diren zenbait ikerketak garbi adierazten du, Bergaran euskaraz haurrek eta zaharrek baino ez dutela hitz egiten, gazte eta helduek ia beti erdaraz hitz egiten dutelarik. Egoera, penagarriagoa da, kontuan izanez gero, bergararren %60ak euskara ondo dakiela.

Taldekideak egoerari buelta emateko bildu dira eta eredutzat Arrasateko AED elkarte hartu dute. Elkartea apartidista eta apolitikoa izango da, hau da, euskararen alde lan egiteko prest dagoen edozein ideiatako jendea ari ahal izango da *Jardunen*, nahiz ezinbesteko baldintza euskara jakitea izango den.

Taldekideek argitu dutenez, bere eginkizuna ez da izango euskararen arloan ari diren erakundeen lana bere gain hartzea, komeni denean erakunde horiekin batera lan egingo duen arren.



Elkarteak ostegunean egin zuen herriaren aurrean aurkezpen zabala arratsaldeko zortzietan UNEDeko areto nagusian.

Elkartearen Zuzendaritza-Batzordea 12 lagunek osatzen du. Batzorde honek, elkartearen egoitza, bazkide berriak bildu eta funtzionamendua zehaztu beharko ditu.

Zuzendaritza-Batzordea behin-behinekoa da eta udazken-neguan aldean egingo den batzar orokorrak berria aukeratu arte, ari izango da lanean.

### ■ Arrasatearren epaiketen sententziak

Ezagunak dira arrasatearrek azken aldian izandako epaiketen sententziak. Igor Letona, Xabier Atxa eta Joseba Kortari Audientzi Nazionalak 20 hilabeteko kartzela zigorra ezarri die. Bestalde Kristina eta Lorea Zeziaga, Beronika Garaik izandako epaiketan, Beronika kargu gabe libre utzi zuten eta Kristina sei urteko kartzela zigorrera kondenatu.

### ■ Henri Parot arrasateartzat

Arrasateko Gestorak, Henri Parot, ustez ETako komando ibiltariko kidea arrasateartzat hartzea erabaki dute. Haren emaztea, Belen Arizabaleta Musakolan jaio zen.

### ■ Odol emateak Anbulategian

Hil honen 24 eta 31an Txagorritxu ospitaleko unitate mugikorra eta sendagileak Arrasateko anbulategian egongo dira arratsaldeko 5etatik 8etara, odola eman nahi duten guztiek eman ahal izan dezaten.

### JAIOTZAK

Gonzalez Rodriguez, *Unai*. Maiatzaren 7an.  
Gutierrez Hernandez, *Alex*. 8an.  
Balenciaga Oaz, *Igone*. 8an.  
Martinez Imirizaldu, *Irene*. 14an.

### EZKONTZAK

Juan Bengoa Pagaldai & M<sup>o</sup> Jesus German Amalio. Maiatzaren 12an Zibilez.  
Juan M<sup>o</sup> Iñarra Belasco & c. Maiatzaren 12an Elizaz.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>o</sup> Gomez doktorea  
A. Otorola doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>o</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.*

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

# SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



**KOLTAZ**

Aranzabal Akobe  
elektrogailuak

ROWENTA  
ESKU-ASPIRAGAILUA




**MELIA BIDAIK**

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT  
BI LAGUNENTZAT



**OKIENDO  
KIROLAK**

ZAPATILAK



**Ikatz**

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA  
AUTOMATIKOA

ASTE HONETAKO  
SARITUAK

OLATZ ARANZABAL  
Esku-aspiragailua

AINHOA YUSTE  
Bi lagunentzako afaria

AITOR BOLLON  
Kirol zapatilak

EDURNE UNZUETA  
Argazki makina

Hileko sari handia



**Ikatz**  
argazki etxea

Saritua:

**IKER  
URIBETXE BARRIA  
AZURMENDI**

**Galdera:**

**Ze egunetan emititzen da Saltsa maltsan?**

**Erantzuna:** .....

Izen-deiturak: .....

Helbidea: ..... Adina: ..... Tlfnoa: .....



## Babes ofizialeko etxeak

### *Behin-behineko puntuazio zerrendak ikusgai*

Aste honetan izan den Gobernu-Batzordeak Altamirako promozio publikoko 41 etxeen adjudikazioa eztabaidatu zuen. Etxebizitza hauek lortzeko eskaera ugari egon da, 521 hain zuzen, nahiz eta espediente bidez eta beren famili egoera, diru iturri eta behar pertsonalak kontuan izanda, 362 izan diren etxeak lortzeko aukera izan duten eskaerak.

Eskaera bakoitzari puntuazioa eman zaio behin-behineko zerrenda osatuz. Zerrendak Udaletxean egon-

go dira ikusgai hilabetez. Epe honetan, jaso duten puntuazioez ados ez daudenek erreklamazioa aurkezteko aukera izango dute.

Erreklamazioak aurkezteko hila-betea pasatu ondoren, zerrendak Jaurlaritzaren Ingurugiro, Etxebizitza eta Hirigintza sailari bidaliko zaizkio, jasotako erreklamazioekin batera. Ondoren, behin-betiko zerrenda eta etxebizitzaren adjudikazioa Jaurlaritzak egingo du. Etxeak abuzturako bukatuta egotea espero da.

### ■ Deba Garaiko AEK eguna

Larunbatean, Deba Garaiko lehen AEK eguna egingo da Arrasaten. Ekitaldiak goizean hasi eta gauera arte luzatuko dira. Goizeko 11etan etxaleroak eta dultzaineroak izango ditugu; hamabietan, Sebero Altuben Euskal Herriko mapa lurrean margotu ondoren, hankapaloak, txalaparta eta trikitilariak. Eguerdian herri poteo egin eta gero, Monterronen herri bazkaria izango da. Arratsalde partean herri-joku saioa izango da. Arratsaldeko 6,30etan bertso-saioa eta gaueko hamarretan Monterronen *Eskoria-tza*, *Angiolillo* eta *Su ta Gar* taldeekin Rok jaialdia.

AEKrekin lotuta, aipatu Deba Garaiko Txiste Txapelketaren antolatzailea AEK izan zela. Bakoitzari berea.

### ■ Baserriak pintatzeko dirulaguntzak


Gipuzkoako Foru Aldundiak hamabost milioiko aurrekontua onartu berri du, baserrien txukuntze lanetarako. Gehienez 50.000 pta.ko diru laguntza emango da baserrien hormak pintatzeko. Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek, Udaletxera jo beharko dute ekainaren 30a baino lehen. Aurreko hiru ekitaldietan subentzioa lortu zutenek ezingo dute berririk eskatu.

**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO  
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2  
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

**LOREA**  
Oinetakoak  
eta poltsak  
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

**L**ARRINGAN  
auto gidarien eskola  
KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN  
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Iñigo Ramirez

## “Arrasate nire herria”

### Udalaren enkarguz egindako ikastunitatea amaituta

Iñigo Ramirez, Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakasleak aste honetan entregatu du Arrasateko Udaltxean “Arrasate nire herria” ikastunitatea osatuko duen materiala, zortzi hileko lanari amaiera emanez.

“Arrasate nire herria” liburuan geografia fisiko eta giza-ekonomikoa aztertzen dira, historiari buruzko atal nagusienak, beti Arrasateri lotuta, noski, artea eta etnografia, azken honetan Mondragoeko jatorrizko ohiturak, usadioak, ipuin

zaharrak eta jaiak esate baterako, sartzen direlarik.

Argitaratzen denean, argazki eta grafiko ugariz homitua, 200 orrialde inguruko liburua ateratzea espero da. Dagoeneko Arrasateko Udala harremanetan dago Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxekin, argitalpen lanak eta kostoak elkarlanean eramateko.

Testuetan azaldutako kontzeptuak argitzeko, liburuez batera dagoenak positiba sorta handia prestatu da.

### ■ AEDren mintegia

Azken larunbatean AED elkar-tearen lehen mitegiaren bigarren saioa izan zen San Viator ikastolan. 62 pertsonak parte hartu zuen eta arlo teorikoak aztertu ondoren, sei taldek gazteria, lan mundua, irakas-kuntza eta aisialdia aztertu zituzten. Taldeetan esandakoak ondoren, denen artean komentatu zituzten.

AEDren zuzendaritza batzordeak orain, han esandako guztia jaso, bildu eta eztabaidatuko du.

### ■ Federatu karneta


Besaide Mendizale elkarteak jakin arazten du elkarteko bazkide federatuek, Federatu Karneta eta aseguruia elkar-tearen egoitzan jaso ditzaketela, astearteetan arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.

### ■ Lurdes-era erromesaldia

Ekainaren 1, 2, 3 eta 4ean Lurdes-era erromes joan nahi dutenei, dagoeneko izen emateko epea zabalik dagoela jakin arazten zaie. Izen emateak Philidar-en hil honen hamazortzia baino lehen.

### ■ 43ko kintakoak

Arrasateko 43ko kintoei ekainaren 9an izango dute urteroko bilera Zigarrolako Ostatuan. Parte hartu nahi duzuenok, ekainaren 2a baino lehen deitu: Pepe 79 47 23, Victoria 79 07 50 eta Simon 79 16 64.




### AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Klaseak  
Itzulpenak  
Udako ikastaroak  
Bidaiak  
Elkartrukeak  
Udalekuak  
Prestakuntza

“Hizkuntza bat gehiago,  
muga bat gutxiago”

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



Kontzeslifo 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



**Pedro Luis Ormazabal** argazkilariak postal ederra bidali digu Boise, Idaho hiriburutik. Boise hiriko 100. urteurrena dela eta, bertako Euskal Etxea zenbait prestaketa lanetan ari, eta posterra egiteko lankidetzaz eskatu diote. Ziur lan polita eskainiko diela!



Iñaki argazkia

Bien artean gerrarik ez zutela nahi esan arren, maiatzaren 23an ezkondu ziren **Jose Ramon Agirreurreta** eta **Rosa Urreta, J.I.** Otsoa "Gerrak" zuzendutako ekitaldian. Zorionak!



Aurreko batean, eskaladari buruzko lana egiten ari ginela, **Jon Lazkano** bergarrara txikitik eskalatzeko zaletasuna piztu zion irakaslearekin agertu zitzaigun. Nor ote irakaslea eta... **Damaso Gallastegi** bergarar ospetsua (ikus Arrasate Press 43. zenbakia). Hamar hilabetetan Hego Amerika osoa eta Ertamarikako lau herrialdetan zehar bidaiatu ostean, apirilaren bukaeran itzuli zaigu. Gure ongi etorrikeri beroena, **Damaso**.

**Antonio Azkoaga** Erzilla Arrasateko Gesalibar auzoan jaio zen. Hamalau urterekin Bartzelonara joan, eta urte gutxitan Londres, Paris, Madril eta Bartzelonako hotelik ezagunenetan (Savoy, Ritz, Palace...) ibili zen txef lanak betetzen. Madrilen hil zen 1935ean. "El mayor de los dioses euskaros" sona handiko artikulua idatzi omen zuen bizkaitar erara prestatutako makailoari buruz. Bateren batek Antonio

Azkoagari buruzko informazio gehiago izango balu, DV egunkariko **Rafael Garcia Santosek** gustora jasoko luke ▼




**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





◀ Ikaratuta gelditu zen Goio Arana; nondik etorri ote ziren hainbeste neska-mutiko!

Almeneko laugarren mailako haurrak ziren, maiatzaren 4ean Arrasate Press-en bixitari izan genituenak. Hor hurbildu ziren, galderak aurretik prestatu eta gure berri jakiteko gogo bizian. Ondo

## izen propioak


■ **Antton Fernandez, 36**, Arrasaten bizi den bergarra, AUKEAN kiroldegi erabiltzaileen ordezkaria izateari utzi dio. Antton, Udaltzain kaboa da eta azken bost urteetan KIUBeko arduraduna da.

■ **Xabier Lizaur, 6**, arrasatearra, Trafiko Zuzendaritzak antolatutako Segurtasun Bi-lari buruzko Marrazki Lehia-ketan, eskolaurreko 3. saria irabazi du. Xabierrek Olarte-ko ikastolan eskolaurreko azken maila egiten ari da.

■ **Jon Kintana, 6**, arrasatearra, Trafiko Zuzendaritzak antolatutako segurtasun bi-lari buruzko marrazki lehia-ketan, akzesita jaso du. Jon-ek, Olarteko ikastolan, esko-laurreko hirugarren maila ikasten dihardu.

■ **M<sup>a</sup> Asun Zubia, 23**, arrasatearra, AUKEAN kontsumitzaileen ordezkari berria izango da. M<sup>a</sup> Asunek Eskoriatzako jubilatuei gimnasia irakasten die, Magisteritza ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan egin zituen eta gaur egun dantza ikasten ari da.

Hor dituzue argazkian *Saski-Naski* lehiaketaren azken asteko irabazleak: Okendo Kirolak zapatilak **Jone Monterorentzat** izan ziren; Etxe-Aundiren afaria **Iraia Solarentzat**; Ikutzen argazki-kamara **Eukene Mondragonentzat**; eta Aranzabalen aspiragailua, **Eneko Auzmendirentzat** ▶



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94




Otalora 2, ARRASATE

# Unibertsitaria, nora zoaz?

## Deba Garaian, ikasle gehienek teknika eta industria arloetara jo

*Heldu da maiatza; eta maiatzean, urtero bezala, hamezortzi urte inguru duten ehundaka, milaka gaztek etorkizuneko ikasketa unibertsitariak aukeratuko dituzte.*

*Alde batetik euren nahiak, eta bestetik biharko lan-merkatuak eskatuko duena; horra hor bi munduren arteko gatazka.*



Liburuak, apunteak. Ikasketen mundua, azken finean.

Deba Garaian, 70eko hamarkadarekin konparatuz, argi ikusten da ikasketa Unibertsitariak gorakada handia ezagutu dutela bukatu berria den 1980-90 urteen arteko epean.

Horrela, 80-81 ikasturtean 1.063 baziren Deba Garaian Unibertsitate mailako ikasketak burutu zituzten gazteak, 89-90ean berriz 1.555era igo zaigu zifra.

Sarritan entzun izan da Unibertsitateko irakaskuntza zaharkituegia gelditu dela, ez dituela lizentziatuak lan mundurako prestatzen. Hala ere, antza denez, gazteek beharrezkotzat jotzen dute tituluren bat lortzea, lanpostuak errazago eskuratzeko.

### Orain artekoak

1989-90 ikasturtea oinarritzat hartuta, arloz-arlo aztertuta, Deba Garaiko aukeratuena Teknika eta Industria-rena izan genuen, 470 ikaslerekin. Horren ostean, Administrazio eta Ges-

zioa, 413rekin; Giza eta Gizarte zientzian 363; Natur Zientzian 146; Hizkuntza arloan 87; eta bukatzeko, Arte eta bestelakoetan 74 ikasle.

Banaketa karreraz-karrera eginez, ostera, zera ikusten dugu: neska-mutil kopuru handiena Injinerutza tekniko-industrialari ari dela ikasten, 311 ikasle hain zuzen ere; 207 Enpresa ikasketak egiten, 206 Ekonomikoak, eta zerren-

dan laugarrena, 110 ikasle Zuzenbide ikasketak burutzen.

### Inguru hurbilean ikasi daitekeena

Kuriositate bezala, esan dezagun Deba Garaiko unibertsitarien kopurua

Euskal Herri osoan ematen den batzbestekoaren antzekoa dela. Hartzeko ere bada hori, kontuan hartzen badugu 'Campus'ak (Gasteizkoa ezik) urruti gelditzen direla, garraio bideak eskasak direla eta, ikasleek bertara joan behar izaten dutela bizitzera, ikasketen kostua ikaragarri igoaz.

Hutsune horiei aurre egiteko orduan, lau alternatiba: Bergarako UNEDen egin daitezkeen ikasketak, Injinerutza Teknikoa EPPn, Enpresa ikasketak ETEOn, eta Majisteritza Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

Begarako UNEDen, adibidez, 1980-81 ikasturtean 1.426 baziren ikasleak, 89-90ean 2.443 pertsonak eman zuten izena.

Eskola Politeknikoan ere kopuruak gora egin du. 80-81eko 301 ikasleak, gaur egun 970 dira dagoeneko. ETEON ere, ikasle kopurua 156tik 283ra igo da hamar urteotan.

Eskoriatzako Irakasle Eskolan, ostera, 80-81ean 161 matrikula egin baziren, 89-90ean 142ra jaitsi ziren. Agian jaiotza-tasaren beherakadak izan dezake horren errua.

### Bide berriak landuz

Unibertsitate mailako zenbait ikasketak ez dutela gerora lanerako aukerarik eskaintzen eta, Hezibidearen eskutik goi mailako Lanbide-Heziketa bultzatu nahi da etorkizun laburrean; hau da, espezializaturiko prestakuntza

**"Informatika, Injinerutza, Zuzenbidea eta Ekonomia, etorkizunaren puntaren puntan"**

eskatzen duten hainbat lanbide berri sortzea.

Prestakuntza mota berri honek zera suposatuko luke berrikuntza gisa: egitarauaren zati bat ikastetxean bertan izatea, eta praktikak ostera, inguruko


lantoki batean.

Zer espezializazio aurkituko ditu ikasleak programa honetan? Besteak beste, ekintza sozio-kulturalak, ekipo informatiboak, fabrikazio mekanikoa, makinaren mantenua eta sistema automatizatuak, gestio-programadorea, bizigiro-osasuna, eta sistema automatiko programagarriak.

#### Lan-merkatuaren etorkizuna

Zaila bada ere etorkizuna asmatzea, lan-merkatuari buruz egindako ikerketen ondorioz, honako hauek li-rateke etorkizun garbiena duten ikasketak unibertsitariak: Informatika, Telekomunikazio-injinerutza, Industri injinerutza, Zuzenbidea, Ekonomia, Elektronikako injinerutza, Zibernetika, Osasuna eta Administrazioa.

DEBA GARAIKO IKASLE UNIBERTSITARIEN KOPURUA



80. hamarkadan, ikasle unibertsitarioen kopurua gorantz

## Zenbat buru, hainbat aburu

**H**eldu dira maiatzeko goizak, maiatzeko arratsak. Sartu Arrasateko Institutuan, eta seguruenik hantxe aurkituko dituzu hamazortzi urte inguruko neska-mutilak, etorkizunerako zer erabakiko duten eztabaidatzen.

Aitziber Urkiola, 18 urte. Beste askotxok bezalaxe, oraindik ez dauka garbi zer aukeratuko duen. "IVEF egitea pentsatzen nuen, baina dagoeneko ez. Enpresarialak, Turismo, Fisioterapia... egia esan, ez dakit, galduta nabil. Gustokoa dudan zerbait ikasi nahiko nuke, baina egunetik egunera ideiaz aldatzen dudanez gero, auskalo! Hori bai, Arrasateki kanpora joan nahi dut, toki berriak ezagutu".

Ez da hori Erich Michbronn-en kasua (nahiz eta izen-abizen alemanak dituen, arrasatearra eta euskalduna dugun mutila). Erich-ek 18 urte ditu eta datorren ikasturtean Bilbora joango da. "Injinerutza ikasketak egin nahiko nituzke, eta bukatzea lortuz gero, Hondakinen Tratamentuan espezializatu. Badakit luzea izango dela, eta gogorra; baina horixe da nik atsegin dudana, eta nire ustez oso garrantzitsua da bakoitzak gustoko dituen ikasketak aukeratzea, etorkizuneko

lanbidean nor bere buruz ondo egoteko".

Saioa Mendizabal, 18 urte. Zaila da biziari dago oraindik, baina esparru mugatuagoan behintzat. "Injinerutza, Arkitektura, edo Etxebarnen Diseinua; horietan artean erabakiko dut. Nik neuk Diseinua aukeratuko nuke, baina hiru urteko karrera izanda, eta eguneko hiru ordu besterik ez, ez dakit errazegia ez ote den izango. Gurasoek ere susmo hori daukate, eta egia esan, ez dut erabaki. Azken finean, kontuan hartu behar baita ikasketek zer irtenbide eskaintzen duten".

Argi dago; gehienek unibertsitatean ikusten dute euren etorkizuna epe laburrean. Baina bilatu Arrasateko Institutuan; bilatu, eta denetik aurkituko duzu.

Galder Cristobalen aukera, adibidez. 17 urteko gazte honek Musikaren mundua maite duela eta, Flauta ikasketak sendotu nahi ditu. "Nik urte sabatikotzat planteatzen dut hurrengoa. Gurasoak ez daude guztiz ados, baina proba egin nahi dut. Gaur egun Armonia eta Flauta hobetzen dihardut. Datorren urtean horretan segi, buru-belarri, eta gauzak ondo badoaz aurrera; bestela, ez badiot etorkizunik ikusten, denbora gehiago izango dut ikasi nahi dudana ondo aztertzeko".

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

publizitatea

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Guipúzcoa**

# “HIESa denori dagokigu”

**Jose Manuel Agud, Arrasateko HIESak jotako gaixoen sendagilea**

*Jose Manuel Agud sendagileak Gasteizko Txagorritxu ospitalean HIESak jotako arrasatearrak tratatzen ditu. Gaiosen kopuruak inolako garrantzirik ez duela esanez., HIESaren inguruan sentsazionalismo gehiegi egon dela adiezari digu. Ondorengoak gaixotasuna tratatzen duen sendagile taldearen eritziak direla garbi utzi nahi izan du.*

— *Arrasate Press: HIESa talde konkretu batzuen arazoa dela esan ohi da. Horrela al da benetan?*

— HIESa jende guztia-ri dagokion arazoa da. Azken al- dian, gaixo berriak sortze- ko prozesua finkatu egin da. Horrek gaixotasuna geome- trikoki ez dela hedatuko adierazten digu. Sendagaiak ez direnez berehalakoan sor- tuko, HIESarekin urte asko- tan bizi behar izango dugu.

Droga, egon badago eta toxikomanoak ere hor dau- de. Lehen, semea toxikoma- noa izatea oso dramatiko- a baldin bazen, gaur egun are okerragoa da, gaixotasun hilgarria harrapa dezake- lako. Sintomak ez dituzten pertsona kutsatuek, bestalde, beren bikotea eta semeak kutsa ditzakete.

Seme-alabak sexu- harremanak izaten hasten dire- nean, ezerk ez du ziurtatzen haien bikotea kutsatuta ez denik egongo.

Arriskua ez da oso han- dia izango, baina bai neu- rriak hartzeko bestekoa. Lasai egoteko aukera izango dugu, baina sexuaren zenbait alderdik arriskua dutela eta aurrebabe- ste- ko oso errazak direla erakutsi egin beharko diegu gure seme-alabei.

HIESa ezagunak diren bidez hedatzen da. Neurriak hartuz gero, ez dago gaixota- suna hartzeko arriskurik.


Gauza horiek seme- ala- bei irakatsi behar zaizkie.

Es- koletan egin daitezkeen kanpainak eraginkor- rak izan daitezke, baina fami- lien la- guntza ezinbestekoa da.

— *Jendeak bere arazoa ez dela uste badu, ez al dago gaixotasuna gehiago hedatze- ko arriskurik?*

— Arazoa oso larria da. Jendeak nahi duena baino ez du entzuten. Gauza bera ger- tatzen da politika, maitasun, gizarte etab.etan.. Nork bere ideiak ditu eta jende- ari ent- zun nahi ez duen mezua emanez gero, kontrako efek- tua lortzeko arriskua dago. Horretan ez- kutuko interesen bat dagoelako ideia sor gene- zake.

Eskolek zeregin handia dute. Jendea informatu egin behar da, baina ez zaio berri- asaldagarri- rik eman behar.



Jose Manuel Agud

aldaerazi ditu. Gaixotasun hau tratatzen dugun pertso- nok, HIESaren aurreko eta ondorengo medikuntza des- berdintzen ditugu. Gizarte- ren baitan antzeko zerbait eman beharko litzateke. Sexuaz ez duzu gauza bera esaten babesgabe- ko harre- manek heriotza ekar diezazu- ketela jakin aurretik eta on- doren.

— *Aurrezaintza neu- rriak, preserbagailua eta he- roinazaleek xiringa garbiak erabiltzea lirateke?*

— Jendea ez injektatzea,

neurria eta konponbide es- kasena duena da hori, giza ohitura da eta.

Bestalde, emagalduekin ari direnek —eta jendeak uste baino askoz jende gehiago ibiltzen da putetan— preser- bagailuak erabil ditzatela. Emagalduekin ibiltzeko ohi- tura duen inoren buruan ez litzateke sartu behar babes gabe ibiltzea.

Gure gizartean, inon baino errazago eskura dai- tezke xiringa garbiak. Berz, jendeak ez litzuzke hil ditza- keten zerrikeriak egin behar. Azkenik, sexu- harreman normalak, jende normalen artean, ba... behar bada jen- dea ez da hain normala eta babestu beharra dago. Zen- bait eskualdetan, lehenago zein harreman izan dituen ez dakizun pertsonekin, edo- zein sexu- harremanetan pre- serbagailua erabiltzeko beste egon daiteke hedatuta gai- xotasuna, edota nork bere analisia egiteko beste, edota zeure bikoteari egin arazte- ko moduan.

Inportantzia handirik eman gabe, baina horrek kultura berriaren parte izan behar luke. Denok geure burua babesteko ohitura hartu beharko genuke.

**“Haurrei, sexoaz aurreritzi barik hitzegin behar diegu, gurasook zein irakasleok”**

HIESaren inguruko berriek jendea seme-alabekin hitze- gitera motibatu behar dute, jendea gauza izan dadin au- rreritzi gabe preserbagailua zer den azaltzeko. Gurasoak gehiago arduratu beharko li- rateke oso baztertuta dagoen arlo honen heziketaz.

— *Horrek askotan gi- zartearen aldaketa eskatuko luke?*

— Historian zehar zen- bait gertaerak pentsamoldeak

droga oraindik ere horren ondo ikusia ez egotea, droga hartzen gazte berri gehiago ez hastea litzateke ideala. Edozein modutan, ez dakit nola irakatsi behar diegun haurrei droga kaltegarria dela, tabernak bete beteta ikusten segitzen duten bitar- tean.

Ez dut ardoa heroinare- kin parekatuko, baina asko- tan oso ohitura gaiztoa da.

Berehala hartu beharreko



## VII. San Isidro Txirrindulari Txapelketa

*Larunbatean, 4etan, lehen urteko kadeteentzat*

Larunbat arratsaldean, hilak 19, Musakolako San Isidro jaien egitarauaren barruan, Arrasateko Txirrindulari taldeak VII. San Isidro Txapelketa antolatuko du.

Arratsaldeko 4etan emango diote hasiera probari, lehen urteko kadeteek esku hartuko dutelarik. Gogoratu, bestalde, San Isidro proba 1990eko Gipuzkoako Txapelketarako balio-garria izango dugula.

### *150 txirrindulari irteeran*

150 txirrindularik eman dute ize-na, eta hor egongo dira irteeran, 50 kilometroak betetzeko prest.

Ibilbidea, honako hau: Arrasate, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Arrasate, Eskoriatza, eta helmuga Musako-

lako Ostatuaren parean.

Besteak beste, hantxe izango ditugu Alejandro Altuna taldeko txirrindulariak.

### *Alejandro Altuna taldea*

Dorletako Ama txirrindulari eskolaren ardurapean korritzen duten lehen urteko kadeteek, Alejandro Altuna enpresaren dirulaguntza jasotzen dute.

Taldeko arduradunak Joxe Mari Roldan eta Angel Sanchez ditugu.

Euren esanetara, hamabi txirrindulari: Zigor Arabaolaza, Asier Aranzadi, Haritz Berasaluze, Daniel Diaz, Asier Ezkibel, Iñaki Gartzia, Aitor Garro, Aitor Hernandez, Iban Navarro, Aitor Llodio, Alberto Rol-

dan eta Angel Sanchez

### *Emitza baikorra*

Orain arte, Gipuzkoako Txapelketarako baliogarriak diren sei probatan korritu dituzte, beste zortzi zaielarik.

Lan polita ari dira burutzen talde bezala, eta aipatu beharrekoa da proba gehienetan bospasei txirrindulari sartu dituztela hogeit onenen artean.

Irabazi, ordea, ez dute proba bat bera ere irabazi. Arduradunen esanetan, ez zaie batere kostatzen lehenengo tropelarekin heldzea, baina egia-oren orduan, sprinter onik ez.

Agian, larunbatean eskainiko digute hainbeste bilatutako garaipena!

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

## p o d i u m a

## Juan Martin Elexpuru, Triatloiaren saltsan


Gehienek idazle izateagatik ezagutzen duzue Juan Martin Elexpuru; baina bergarar honek baditu, bai, beste fazeta batzuk. Horiatariko bat duatloi, eta triatloiaren munduan ibiltzearena.

Hogeitemeretzi urte, eta beti ere kirol zaletasuna gorputzean. "Duela hamabi bat urte, hiruzpatalau denboraldi eman nituen takarrada egiten, maratoiak korritzen. Gero mendira irieteari ekin nion. Eta orain hiru bat urte, ostera, duatloi eta triatloiaren saltsan murgildu nintzen, seguruenik ni neu ere oso saltseroa naizelako".

Aukera polita omen da duatloi, edo triatloian aritzea. "Batez ere kirol ezberdinak egiteko posibilitatea eskainitzen duelako. Korrika egin, gero bizikletan, igerian, eskiatu. Horixe da alizienterik handiena, beti gauza berdinean ibili barik, denetik egitea".

Modalitate gogorak diren arren, plazerra ere suposatzen diote hor-nonbait. "Aurten beterano mailan ari naiz, eta bizigarria izan da hori niretzat. Gutxi garenez, onenatarikoa naiz. Igandean Gipuzkoako duatloi txapelketa irabazi nuen, eta horrek aurrera segitzera animatzen nau".

Emaitza aldetik, hobeto ibiltzen dela duatloian, baina atsegi-



nagoa zaio triatloia. "Batez ere nekukoa, hirugarren modalitatea eskia delako; nahiz eta oso ona ez izan, polita da elurretan aritzea. Udakoa ere gustatzen zait, baina oso txarra naiz igerian egiten, jo eta lehertua ateratzen naiz uretan".

Bere kontura egindako irteera eta konpetizioen arteko nahasketan gozatzen du Juan Martinek. "Gozatu-gozatu, zure kasa entrenatzera joatean; baina zerbait gehiago behar duzu, motibazioa. Nahiz eta sarritan nekagarriak izan, derrigorrezkoak dira lehiaketak, bestela, laga egiten da kirola".

Sortu berria dute Bergaran duatloi eta triatloi taldea, Arrasate Kiroliaren laguntzaz. "Zortzi bergarar, lau antzuolar, eta bost oñatuar. Elkar ezagutzen genuen, eta taldea osatzekotan hasi. Nik uste papel ona egingo dugula, baina ikusi egin behar! Dena den, badugu taldean pena bat, arrasatearrak ez egotea. Ea bateren bat animatzen den!".

### Arrasate-Oñati krossa

Igandean jokatu zen Arrasate-Oñati Krossaren VIII. edizioa. 203 atleta irteeran, probaren 11 kilometro pasatxoak betetzeko asmotan. Denak heldu ziren helmugara.

Onera Santi Gonzalez beasaindarra izan genuen, 35 minutu eta 17 segunduko denboraz. Bigarren postuan Enrike Kabiketa mondragoetarra, irabazlearengandik minutu eta 59 segundutara. Eta hirugarren postuan, berriz, Pedro Zalama, hau ere mondragoetarra.

Haur mailan Iker Zabaleta eta Maider Murguzur izan genituen txapelkun; beteranoetan Xabier Fraile; eta emakumezkoetan, ostera, Lourdes Alonso.

### Gay-k, urrezko domina

Badajozera joan, Espainiako Txapelketa Unibertsitarioan 200 metroak korritzera, eta urrezko domina eskuratu zuen Jose Antonio Gay atleta arrasatearrak. 21 segundu eta 88 hamarrekako marka eskuratu zuen Jose Antoniok. Zorionak!

### Iñigo Roldan

Ziklo Kross denboraldi ederra burutu ondoren, errepidean ere lan polita ari da egiten atxabaltarra. Pasa den asteburuan Euskadiko selezioarekin korritu, eta erlojuaren kontrako proban lehen postua eskuratu zuten. Eutsi goiari, Iñigo!

### Mondra seigarren

Halanolako denboraldia burutu ondoren, Zallan O eta 1 irabazi, eta sailkapeneko 6. postua eskuratu du Mondrak. Horri eutsiz gero, ez da ez lorpen makala!

# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



Arrasate Pasealekua, 4  
79 14 90 ARRASATE

## Gerokoak (IV.)

Baina utz ditzagun nigarrak eta goazen errepasso koxkor horri bukaera ematera. Taldea 72an desegin zen, esan bezala, eta kide bakoitzaren erronka hasi. Gutxi batzuk kantagintza utzi egingo zuten, baina gehienek aurrerako bideari ekin zioten.

Taldearen ihardunean zutabe izan zen profesionaltasunaren helburuak gidatu zituen gero ere kantari bakoitzak emandako pausoak. Xabier Lete eta Lurdes Iriondo Antton Valverderekin eta geroago Pantxo eta Pellorekin elkartuko ziren beren emaitzak aberastu asmoz. Mikel Laboak eta Joxean Artzek elkarrekin segitu zuten *Ez Dok Amairuren* atalik abangoardiakoenak jorratuz. Benito Lertxundik, bere alde-  
tik, bakarkako bideari ekin zion, baina musika lagun ugariz inguratuta. Guztiek ere *Ez Dok Amairuren* garaian sortutako lanak diskoratzeari ekingo

zioten berehala, euskal diskagintzan aintzindari izan zen Artezi diskotxearekin. Disko haiek ez dira guztiak erabat borobilak, baina euskal Kanta Berriaren eraikuntzan zimentuarena egin dute.

*Ez Dok Amairu* desegin zenetik asko ugaldu da euskal musikaren esparrua. Talde berri ugari sortu da —bakarlaririk apenas—, estilo berriak jorratu dira eta egungo euskal musikaren eskaintzak ia molde desberdin guztiak ditu bere baitan. Baina ondorengo belaunaldi guztiak agertzen dira *Ez Dok Amairuren* lanarekiko zordun, bai haiek zabaldutako bideak garatu dituztenak edota haien lana arbuiauz plazaratu zirenak. Azken belaunaldia, hau da, 80. hamarkadako rockeroarena, izan da zor hori aitortzea gehien kostatu zaiona, baina oraintxe hainbat rock talderen artean prestatzen ari den

Mikel Laboaren omenezko diskoak adierazten duenez ukazioaren garaia joan eta sintesiaren aldia hurbil legoke.

Hor dago, beraz, *Ez Dok Amairuren* lana. Baita orduko taldekideak ere. Berriki guztiak elkarrizketatu duten Egin egunkariko Joxean Agirre kazetariak aipatzen zigunez, oso aktiboak dira denek kulturgintzan. Lertxundi eta Laboa jendeaurreko kantagintzan, Joxean Artze eta Julen Lekuona poesigintzan, Irigarai poesia eta hizkuntzalaritzan, Xabier eta Lurdes hainbat arazo larriren bueltan asmo berrirekin hasita...

Belaunaldi aparta euskal kulturarentzat, *Ez Dok Amairuren* aintzindari-tzapean mamitu zena. Bere garaian arrakastatsua bezain polemikoa izan ondoren, denboraren joanean erraldotuz doana.

(Jarraituko). Mikel Intxausti


Loramendi  
kirolak

Camping,  
hondartza,  
eta  
aisialdetarako  
moda





# DENDARABA



# MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

# Inguruaren aprobetxamendua

Ingurune natural eta soziala ezagutaraztea irakaskuntzaren helburu garrantzitsuenetarikoa dena inork ez du eztabaidatzen, nahiz eta praktikan oso prozedura desberdinak jarraitu eskolek.

Prozedura ezberdin hauen atzean dauden helburuak, iharduera didaktikoak eta emaitzak aztertzeke galdera berberari emandako erantzun desberdinak sortzen dituzten aurkako prozedurak aztertuko ditugu.

Zeri eman garrantzia? Edukien ikasketak memoristikoa edo inguruarekiko harremanak garatzeari?

Lehenengo aukeran kontzeptuen ezagupena deskontestualizatu eta memoristikoa ematen zaio garrantzi gehien.

Bigarren aukeran, ostera, kontzeptuekin batera, inguruarekiko harremanak sakontzeko trespen erabilera erakusten zaie, eta honez gain, inguruarekiko jarrera positiboak garatzen lagundu.

Bi aukera hauetatik sortuko diren



ekintzak landuko diren eragiketa kognitiboak oso desberdinak dira: lehenengo aukeran, haurrei hainbat kontzeptu buruz ikastea eskatu zaie; hau egiteak eskatzen dion eragiketa kognitibo garrantzitsuen buruz ikastea da.

Bigarren aukeran, ostera, informazio deskontestualizatu garrantzi txikiago ematen zaielako, gaien aukeraketa egiterakoan, garrantzi handiagoa emango zaie honelako gaiei:

- . Urak paisaian duen eragina
- . Erreka baten bizitza
- . Kutsadura

Gaien azterketa, inguruan dituzte elementuetan oinarrituko da, hau eginez, kontzeptuen ikasketarekin batera, haurrek ingurua aztertzeke prozeduraz jabetuko dira eta inguruarekiko jarrera positiboak garatuz joango.

Hau eginez, hainbat eragiketa landuko dira:

- . Datuak jaso, ordenatu, konparatu.
- . Informazioa laburtu.
- . Hipotesiak formulatu.
- . Ondorioak formulatu.

Garapen kognitiboaren ikuspegitik aztertuta, argi dago bigarren aukerak askoz ere posibilitate gehiago ematen dituela. Bestealde, garapen honek, ikasitakoa bizitzaren beste testuinguruetan erabiltzea posibilitatuko du.

Beraz, esan daiteke orain arte gizar-teak balortu duen memorizazioa iraupen motzekoa izateaz gain, ez dela nahikoa pertsonak aurkitzen dituen arazoei aurre egiteko.

*Klarion taldea*



# Euskal Dantza Jaialdia

*Lore Gazteak Dantza Taldea*

Maiatzak 19, larunbata

Gaueko 10.30etan

Amaia antzokian

Sarrera: 300 pta. Gazte-txartelarekin, 200 pta.



Arrasateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Alkohola (II)

**H**istoria pixka bat egingo dugu gaurkoan. Aintzina-aintzinatik ezagutzen dira alkoholak eragindako intoxikazioaren ondorioak. Horrela bada, Hebreotarren "Mito" batek honela zioen: Noe soroan goldaketan ari zen egun batean deabru batek zirikatu eta tentatu zuen; eta deabruak zertan zebilen galdetu zionean, Noek honela erantzun zion: mahasti bat landatzen ari naiz, eta fruitua heltzen denean mahatsak emango ditu, hauek onak dira, fresko nahiz lehor jateko eta bere zumoa ateratzen zaienean ardo bihurtzen da, eta honek gorputza eta arima berotzen ditu.

Deabruak orduan mahastian bazkide izatea proposatu zion eta ados jarri zirenean, deabruak berehala arkume bat, lehoi bat, tximino bat eta txerri bat sakrifikatu zituen, animalia guzti hauek odolak mahastiko sustraiak ernaldu zitzen.

> Guzti honek jendartean honelako ulerketa izan du: gizona arkumea be-

zain errugabe eta kaltegabekoa bada ere, edaten hasten denean lehoi baten antzera sentitzen da lehenengo uneetan, harro eta bere indarraren jabe. Alkohol neurri haundiagoa edanez gero, bere hizkera nahasten da, eta tximino txotxolo baten modura portatzen da; gehiago edaten duenean, berriz, lurrera jausiz janari, edari eta zikinkeriekin nahaskilduko da txerri baten antzera.

Alkohola behin eta berriro jainkotua izan da eta ardoaren jainkoak izen asko izan ditu: Baco, Dionisio, Liber, Evius... denetan ezagunena, ordea, Baco izan delarik. Bere ohoretan jaiak egiten ziren eta hauek orgiak eta bakanalak bezala izan dira ezagutuak.

Beste istorio batek edo hobeto esanda, mitologiako pasarte batek dienez, Bacok India menperatu omen zuen odol-tantarik isuri gabe, herri guztiak bere menpe jartzen bait ziren pozaren pozez. Horrela, soroak landatzen ikasi zuten, Bacok erakutsita nos-

ki, eta era berean ardoa egiten.


Kristauen artean ere, erlijioak duen misteriorik garrantzitsuenan, ardoa erabiltzen da. Mezatako sakrifizioan Kristoren Odol bihurtzen da eta honek badu balore simbolikoa. Jende artean ere, eta mito popular batean aurki dezakegu: "ardoak odola egiten duelako" sismismena.

Horrela bada, ardoa eskaintza preziatuen bilakatu zen, eta herri guztiako bizitzan sartuz, abegikortasunerako erabiltzen zen.

Eta gertakizun guztietan, txiki nahiz handietan, hantxe aurki dezakegu: bataioetan, ezteietan, hiletetan, erregeen koroapenetan, untziak uretara-tzeetan...beti ardoa edanez.

Santuak ere bertan egoten dira hainbat markeari izena emanez; eta horrela ditugu ardo goxoen artean: Santa Katalina, San Clemente, San Patrizio, San Isidro, Beneditine...izenekin garrantia emanez.

*Eukeni-Arantxa*



# Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

## San Isidroko bixamona

**P**entsatu eta esan bezala, aurreko domekan mendiko bizikletan gabiltzanok ze aukera polita izan genuen San Isidroko jaixetan murgiltzeko.

Goizeko 9etan, denok kiroldegi ondoan, fresko samar, oraindik goizargitan, lanbro-euri fina gainean, eta denok irteteko desietan.

9.15etan antolatzaileak heldu eta egundoko harrera, ibilbidea azaldu ondoren, denok aurrera. Ahaztu barik herriko ATB hantxe zegoen begi-kamarak prest zer hartuko eta emungo.

Urten, bidea zeharkatu eta San Prudentziorantz abiatu ginen. Jendearen esanetan, pasio bikaina: lana, arbola artean, erreka ondotik. Denok pozik. Berriro kamarak San Prudentzion eta Zubillagaraino atzetik izan genituen.

Txaetatik pasa eta Urkulun ha-



marretakoa. Batzuk arinago, beste batzuk motelago, baina denok heldu ginen Urkulura. Laranja, limoia, kakaueteak, gailetak, etab. prest geneuzkan: giro majoa!

Berriro be nagiak astindu eta Larriñotik Bedoñara bizikleta gainean, lokatza artean, lanbropean. Bukatzeko, egundo aldatza jaitsi

behar izan genuen; zulatu ugari izan zen, erorketa txiki batzuk eta azkenik, Musakola-Zigarrolan.

Antolatzaileek mangera prest bizikletak garbitzeko eta ondoren dutxa kiroldegian.

Ostean, San Isidro soziedadien luntx txiki bat eskaini eta eman ziguten.

Giro jatorra zegoela San Isidroetan esaten zuenak, errepikatzen jarraitzeko motibo ugari aurkituko du. Benetan txalogarria jende jator honen lana.

Amaitzeko: datorren ekainaren 3an, Eibarren, beste martxa bat izango da; ekainaren 16an, Besaidek antolaturik, berriro beste proba. Ea oraingoan parte hartu dutenak hurrengoan ere animatzen diren, eta etorri ez direnak anima daitezela.

VVT

# UDALEKU IREKIAK



### ✓ NORENTZAT

ARRASATEKO 6tik 13 urte bitarteko haurrentzat.

### ✓ DATAK

Bi txanda izango dira:

1. UZTAILAREN 2tik 13ra (Asteburua ezik).
2. UZTAILAREN 16tik 27ra.

### ✓ ORDUTEGIA

GOIZEZ: 10.00etatik - 13.00etara.  
ARRATSALDEZ: 3etatik - 7etara.

### ✓ INSKRIPZIOAK

**NON:**

- Haurra ikasten ari den Ikastetxean edo
- AED Elkartearen (Pablo Uranga 4, behea. Tfnoa: 79 54 46).

**NOIZ:**

- Maiatzaren 7tik 31ra.

**PREZIOA:**

- 2.000 Pta.

# Indarberritu den lehoi arrasatearra



## RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aulkietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

Aste gazte

Oporrekin segituz, Gazte Zerbitzuan estatu espainoleko nahiz atzerriko informazio turistikoa duzula gogorarazten dizugu.

Alojamendu merkeren bila bazabiltza, orain lor dezakezu nazioarteko ostaturkide txartela, mundu osoko aterpetheen atek zabalduko dizkizuna. Gidak hemen kontsulta ditzakezu.

Honetaz eta gauza gehiagoz Gazte Zerbitzuan informa diezazukegu. Ez zalantzan ibil.

Udalekuak

• 8 eta 11 urte bitartekoentzat. Uztailaren 1etik 15era. Euskaraz. Lekua: Araia edo Maeztu (finkatu gabe). Prezioa: 13.000 pta.

Lan-ihardunaldiak

• Euskaditik kanpoko plaza gehienak beterik egon arren, mugitzen bazara, agian zerbait topatuko duzu. Prezioa: 5.000 eta 8.000 pta. bitartean.



• Euskadirako, oraindik badaude, 18 urtetik gorakoentzat (15-17koak erreserba-zerrendan). Modalitateak: arkeologia, animazioa, etnologia, etab. Prezioa: 7.000 pta.

Oporraldiak naturan

• 15 eguneko egonaldiak Parke Nazionalan (Covadonga, Doñana, Ordesa). 11 eta 14 urte bitartekoentzat. Prezioa: 20.000 pta. eta bidaia.

• 15 eguneko zeharkaldiak Parke Nazionalan. 15 eta 17 urte bitartekoentzat. Prezioa: 20.000 pta. eta bidaia.

• "Errekak Ezagutu", 15 eguneko programa. 15 eta 17 urte bitartekoentzat. Prezioa: 20.000 pta. eta bidaia.

Lehiaketak

• Eibarko San Juan jaietarako Kartel-Lehiaketa. Neurriak: 70x50. Saria: 60.000 pta. (15.000 ptako akzesita). Lanak aurkezteko epea: Maiatzaren 25a baino lehen.

• Kaleko I Margo Lehiaketa (Lekeitio). Eguna: Maiatzak 26. Gazte eta nagusientzat. Bi maila: 12-18 urte bitartekoak eta 19tik gorakoentzat. Teknika librea. Sariak: 1. maila: 25.000 eta ikurra, 15.000 eta ikurra. 2. maila: 75.000 eta 40.000. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 25a baino lehen.

• "San Roke Jaiak 90" Kartel-Lehiaketa (Deba). Teknika librea. Neurriak: 88x58. Lanak aurkezteko epea: Ekainaren 29a baino lehen.

Arteleku-ikastaroak

• Ehungintza Tailerra. Ekainean, astelehenetik ostiralera.

Ikasle-kopurua: 12 (aukeraketa egingo da). Matrikula: 15.000 pta.

• Ordenagailu bidezko animazioa. Maiatzak 28-Ekainak 1. Adierazkera honetan interesa duten sortzaile eta teknikariei zuzendua. Inskripzioa: maiatzaren 23ra arte (aukeraketa egingo da). Matrikula: 17.000 pta.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua 79 09 00 tfnoan.



ARRASATEKO UDALAK

Idazkaria

Behar du, bitarteko izaeraz.

Deialdi hau agertzen duten oinarri-arauak maiatzaren 11ko 90 zkia duen G.A.O.n (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitaratuta agertzen dira, eta Arrasateko Udaletxean eska daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea hil honen 31n amaituko da.

Arrasaten, 1990eko maiatzaren 11n Alkatea

**ETXEBIZITZAK**

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramalo kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.
- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.

**LANA**

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingo. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Taberna, jantetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxean eta etxeko bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrik emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnoa deitu. Garbiñe.

**SALEROSKETAK**

- Yamaha XJ 650, BI-AC kilometro gutxi eta merkea salgai. Tfnoa: 79 36 65 Miguel Angel.
- R-12 TS autoa salgai. Interesatuak 79 33 43 Tfnoa deitu, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Maleta, motxila eta poltsak, era guztietakoak salgai. Oso prezio onean. Nahi izanez gero, Aramaion San Martin Ikastetxean izango dira. Tfnoa: 945-44 50 04
- Bizikleta ia berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69
- Alpen-Kreuzer "Allure" korro denda salgai. 20 egunetan erabilia. Tfnoa: 78 19 87 gaueko 9tik 10era. Mikel
- Amstrad CPC 6128 ordenadorea salgai. Disketa (3"), 128 k., Kolorezko monitora, joytick profesionala (telemach), programak (datu basea, testo prozesadore...), 40 joku eta manualarekin. Tfnoa: 76 25 12.
- Bizikleta salgai. 10-12 urtekoentzat aproposa. Merketxo. Tfnoa: 79 31 04

**DENETARIK**

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletoako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 69
- Jo ta fuego Poxpoluari. Kontuz zenbakitxoekin. Amonaren partez pare bat muxu eta besarkada bat. Kontakua 42 43 52 da (1-3). Goñi

**ARRASATEN HILDAKOAK**

**Maria Gallastegi**  
Maiatzaren 9an. 80 urte

**Francisco Abarrategi Agirre**  
Maiatzaren 9an. 75 urte.

**Felisa Zarate Elgorriaga**  
Maiatzaren 10ean. 85 urte

**Margarita Arrazola Ganboa**  
Maiatzaren 12an. 90 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

## Famauen ahotik

### Bittori Garai: *Kuatrobienton* tabernie aueneko kontuek (eta 2)



*Nik neuk tabernaik ez...*

Ni hona ezkondu eta 18 hilabetera hil zan aitte hamengue eta neuri be esan eusten tabernie ipiñi bihe gaukiela, ta nik esaten nutzen ezetz, tabernarik ezetz; hau eztala tabernie ipinteko parajie; burrukan da hasi eskero, hona ezin leikiela ez aguazillik eta iñobe etorri haik eta danak hill artien. Lehen kotxerik eta telefonoik eta ezebe ez zauketzun eta hona iñor ezin zeikien aillegau bata bestie hill artien.

*Kuatrobienton txarra ezela be ezin izen*

Ez neuk esatiarren, baiñe hamengo mutillek fiñek eta onak zien sema-alaba danak eta esaten auien "eske, gu txarrak zela pentsetan jatzu izetie, xemei ez gauken; soldau jaun artien neska bateaz berba bat be ez giñuen eñi, zela ingo giñuen ba! Ez gauken dirurik ez gauken jantzirik eta ezebe. Ezin geikin jua Aramaixoraiño be. Soldautzatik etorri gitzenien ba orduentxe puxkat espabillau gitzen da..."

Orduentxe ba nausixuenak Zerrajeran itxurie sartu zien ta orduentxe gogortu ein zien puxkat. Ta neuk esaten nutzien hamen ze lan topetan auien ba. Uuu, lana...lana zenbatgure egoten ei zan, baiñe dirurik ez...da dirurik barik gaxki ezin ikesi ba mutillok! Bueno harek mutillek, eske die banabanukuek e!...danak e...

*Gaartzarrak aitte preso hartu eta ardaue harrapau*

Hemengo aitte on hutse zan eta ama, ba, iake hainbeste ume aueken, ba, betik ume zain. Ta behin, ba ei auzen hemen hiru gaartzar eta gure aitte zitau auen laugarren, jokuen eitteko. Ta amori, ba, ume danok hartu ta kuartora ohera juengo zan, umiok zaatak atarako zittuen eta aguroi hasarretu eraingo eutzien, eta amori ume danak hartu eta ohera ta bestiok jokuen hamentxe, ta nahikue eñi auenien ba baakixien gaartzarrak nun egoten zien erarixek eta hartu daue botilla bana ta gorde daue hamen nunbaiten eta aitorri esan dutze, "hi, Patxi, guk halako kopa erango gaukek eta ekarrik kopa bana." Bieldu daue gizonori ardangelara, morrokuaz zerrau dutzie atie, hartu botilla bana hirurek ta biaje. "Zabaldizue ta zabalizue..." baiñe harek ezeutzien zabalzetako zerrau. Ama akordau zanien bajau da, ta harek jakin zenbat botilla auen, "Kotxiño, gaartzarrak..." Eukitten auen amorru bat gaartzarrendako! Baiñe hurrengoko egunien be mosu ona ipiñi biher!

*Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai*

## Zelebrequerixak

San Juanak etortzen zienian, Eibarko jaixak ziela eta, herriko musikuei jai emoten zotsen, erek pe herriko jaixak aprobe txau zeizten. Hau dala ta, beste herri batzuetako musikuek ekartzen zien. Eta horren artian Plazentziakua. Banda zelebriena izanda, zela ez ba ekarri. Eibarko herrixa etzeuan Plazentziako banda barik jaixak pasatzeko, ez horixe.

Eibarren euken famiagatik behintzat, Plazentziako musikuek erale amorratuak zien eta deskantsu guztietan zurrut eta zurrut jarduten eben. Jakiña, azkenerako atal galantak harrapatzen zittuen eta beren direktoriak nahikua lan izaten eban zaindu ezindda.

Eta ez hori bakarrik. Musikiak pe azkenerako zela halakua urtetzen eban, baiña plazentziarrei ez esan holakoik. Beren ustez Eibartik pasatzen zan bandarrik onena zan eta horren pruebarik onena eibartarrak etzekixela haura barik herriko jaixak pasatzen.

Urte baten Plazentziako direktoriak deitu zotsan Eibarkuai esanaz:

- Hi, esaidak aurtengo jaixetan ze piezatsu jotia nahi dozuen.

Hori entzunda baten batek penitsuako dau Filadelfiako orkestiak aiñako errepertorixua eukela.

Eibarko direktoriak hala kontestau ei zotsan:

- Hara, nahi dozuen piezak jo eizuez, baiñe gauza bat bakarrik eskatzen dotsuet: joten dozuena josten dozuela, danok batera amaitzia.

*Juan Martin Elexpuru*



## OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*  
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





Baleriano Martinez

Eusko Gaztediko kosakoak 1934

**P**

erestroikaren oihartzunik artean ez, baina errusiar koroenak aspalditxo ailegatu ziren

Mondragoera. Haiekiko miresmenak abesti errusiarrek euskaratu eta nondik edo handik kosako jantziak lortu ondoren, hainbat ekitaldi ematera eraman zituen Arrasateko Batzokiko korokideak.

Argazkiko hau Bedia antzokian eman zen, Zaldibarko pilotalekuko frontisaren parean, gero biltoki bihurtuko zena. Emanaldia Luzio Markaideren zuzendaritzapean egin zen.

Goiko iladan ezkerretik eskuinera, Paskasio Aperribai, Bixente Inda, Roman Bidaburu, Gregorio Unamuno, Paultxo Galdos, Jose Fernandez, Andres Arregi "Kataide" eta Inaxio Olazabal.

Bigarren iladan, Pedro Zumelaga, Luzio Berezibar, Juan Aiausti, Luzio Markaide, Anton Azkoaga, Bixente Barrutiabengoa eta Joseba Sanpedro.

Jarrita, Ramon Aranbarri, Diego Arregi "Artxubi", Pedro Murgoitio, Iñaki Arrieta, Eloi Urzelai eta Donato Aranburuzabala.

**PUB  
HAIZEA**



**MIREN**


**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



"Hau bai aukera!" ari zen bere artean Engraxi, Juanitiko eta Martinitika kirol-dendan ikusita...



Ez du berdin pentsatu aldegin dutenean. Zer kirol dute gogokoengure haur zoragarri hauek?

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin

Obrak direla eta  
ERDIKO KALEAN GAUDE

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

ZUBIZARRETA  
TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Zu kalean gora.  
Elionor kalia behera.

Ostatuan barna  
bere begiekin topo egiterakoan,  
bihotzaren daupada azkarrak.

Polita da Elionor.  
Bai, gustoko izan duzu beti  
emakume beltzaren lirainaren presentzia.  
Agian horrexegatik,  
Elionor ikusi  
eta bihotzaren daupada azkarrak.

Hor aurkitu duzu gaur ere,  
politto.  
Lepoa emango zenuke  
zure keinu baten zain dagoela.

Eta bakixu, txo?  
Ze gauza.  
Ez zaizu inoiz keinu hori aterako.

Bon J.

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**BOLINTXO**

**kirolak**

Ibargarai 10, BERGARA

■ **Irratia hurbiletik.** Hiru astebete izango dira Loiolako Herri Irratiak Monterron Kultur etxean Arrasateren hirigintzaz irratsaioa antolatu zuenetik. Mahaian Arrasateko Alkatea eta bost zinegotzi. Ondoan Eskola Politekniko bost ikasle, parte hartzera gonbidatuak. Funtzioa zuzentzen, Alberto Gorrituberea, Loiolako Herri Irratiko esataria.

Oso esperientzia polita izan zen irratiko profesional bat lanean ikustea, zuzenean. Bere gidoiak, oharrak eta bestelako paperak aurrean, argi zegoen programa ondo prestatuta zeukala.

Hasieran, uhinataratu aurretik, azalpenak eman zizkien gonbidatu guztiei, programaren ordu t'erdiaeren nondik norakoaz. Argi zegoen baita, ingurukoei konfidantza ematen saiatzen zela. Ordura arte, dena ondo.

Irratsaioan sartu zirenean izan ziren kontuak. Albertok eutsi egin zion mikrofonoari, hara eta hona begiratzen zuen bitartean, programari sarrera eman, bere kideak aurkeztu eta publizitateari bidea eman...sekulako jario eta erraztasunaz.

Nik uste dut han geunden guztiok harrিতa gelditu ginela, Albertok erakusten zuen maisutasunaz. Edozein antzokitako eszenatokian zegoela ematen zuen. Mahaikide batek, hango guztion pentsamendua irakurri izan balu bezala, "tablas" hitza aipatu zion, eginaren eginak ematen duen ofizioa aditzera eman nahian.

Alberto presiopean ari zen lanean. Gai asko aztergai, jende asko hitz egiteko, denbora mugatua eta iragarkiak sartu beharra. Ez zen ailegatu berak egin nahi zituen gauza guztietara, baina oso lan polita egin zuen. Geroz eta profesional hobeak ditugu euskal irratigintzan.

■ **Txirrindularitza eta espioitza.** Aurtengo Espainiako Vuelta ikuskizun moduan beste urte batzuetakoa baino motelagoa izan bada ere, izan du, niretzat bederen, nobedaderik...hizkuntza mailan.

Orain arte espioitza edo gerra giroko nobeletan soilik irakurritako hitzak irakurri ahal izan ditut, niretzat zentzu berria zuten adieratan.

"Infiltrar" hitza ba, norberaren taldeko kide edo agentea arerioaren lerroetan sartzea zen, bere benetazko nortasuna agerian jarri barik. Egun hauetan, ostera, Alvaro Pino ia egunero "ha tenido que ser infiltrado" irakurri izan dut behin eta berriro, xiringatu behar izan dutela esateko, hau da, injekzioa eman. Correion bestealde, hauxe irakurri nuen: "después de la contrarreloj, Gorospe vuelve a ser operativo". Operativo, espioitza nobeletan, zerbitzuan eta lanean dabilen agenteari esaten zaio.

Auskalo nondik datorren hitz hauen erabilera zentzu berri hauetan. Ez dakit kazetariaren arteko moda hutsa den ala zer. Ni behintzat, harritu nauela ezin uka.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Italiako Giroa:** amaitu berria dugu Espainiako Txirrindulari Itzulia, eta larunbatean bertan hasiko zaigu Italiako Giroa. Zori onean daude txirrinduaren zaletuak, aurten ETBk egunero emango dituelako etapa bakoitzeko azken kilometroak. Konexioak, 15.15ak inguruan.

■ **Bob Marley:** Pasa zen igandean Peter Tosh-en emanaldia eskaini bazuen ETBk, oraingo honetan Bob Marley-ren txanda dugu. Reggaearen erregearekin gozatzeko aukera, igandean, 23.30etatik aurrera.

■ **Arrotzarekin dantzan:** Mike Newell-en filmea, asteazkenean, gaueko 21.10etan. Ruth Ellis, dantza eta zerbitzu sexualak eskaintzen diren klub pribatu bateko arduraduna da. David Blakely, ostera, gazte harroa, auto eta snobismo zalea. Elkar ezagutu, eta beren artean pasio suntsitzailea jaioko da. Antzezleak M. Richardson, R. Everett eta Ian Holm.

bideoak



Arrotzak paradisuari

XVI. mendeaz gero gizakia-  
ren eragina sakonki aldatzen ari da Mediterraneoaren itxura. Ordurarte, gizakiak Mediterraneoaren uretan zuen eragina oso txikerra zen. XIX. mendetik hona Suezeko ubidearen zabaltearekin, Itsas Gorriko animaliek irekia izan dute Mediterraneoari atea.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).




**X**abier Latorre bergararra. Almenen ingelesa irakasteaz gain, Bergarako Angiolillo taldean jotzen du. Pozik zegoen Xabier, izan ere, hainbat abestiz osotutako maketa atera bait dute. Laster fama eta ospearen Olinpora, Xabier!

aste ko

**PROGRAMAZIOA**


**H**atzamar batean izandako ebaketaren ondorioz bajaldi luzetxoa pasatu ondoren, indarberrituta itzuli zitzaigun Begoña Garai eta gogo handiz Koldo Rodrigueze-kin batera gure albisteak aurkezteko. Datorren astean bera izango dugu *Berriak* saioa aurkezten.



- 21 ASTELEHENA**  
20.00 **Berriak** Begoña Garaik aurkeztua  
20.20 **Mondrasport** Jon Anduezak aurkeztua  
21.00 **Berriak** (errepikaldia)
- 22 ASTEARTEA**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 23 ASTEARTEA**  
20.00 **Berriak** Begoña Garaik aurkeztua  
20.25 **Zenbat buru, hainbat aburu, mahaingurua.** Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Moda Arrasaten. Gonbidatuak: Espe Arregi, jostuna; Marilu Lasagabaster, saltzailea; Joxe Markiegi, saltzailea eta Miren Agiriano, jostuna.  
21.10 **Berriak** (errepikaldia)
- 24 OSTEAGUNA**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.25 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 25 OSTIRALA**  
20.00 **Berriak** Begoña Garaik aurkeztua  
20.20 **Erretratoa, J.R.** Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Juanito Artzamendi, Arrasate Musikaleko zuzendaria.  
20.50 **Musikantoi, Mikel,** Pepe, Asier eta Patxi aurkeztua. Bon Jovi, Terence Trent D'Arby, Heriotza, D.R.I.  
21.40 **Berriak** (errepikaldia)
- 26 LARUNBATA**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)  
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



**P**aco Altube, Josu Galdos eta Jabi Elduaienek ATBren asteburuetakoko talde teknikoa osatzen dute. Arrasatearrak hirurak, Andoingo Bideo Eskolan ikasi dute. Finak mutilak!



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Zuhurra izan beharko duzu zeure ondasunekin; xehetasun guztiak arakatu erabilpenik eman aurretik. Erromantze kilikagarria eta bero-beroa bizi izateko aukera suerta liteke.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Lanak, xedek ondo finkatu behar izatea eskatuko dizu, lehenengo ondo antolatuta eta itxuratu eta gero aurkeztu. Jatorri kilikagarria duen norbaitek maiteminduko zara beharbada.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Benetan gustora sentituko zara egin eta esaten duzunarekin ingurukoek begi onez ikusiko dutelako. Harro sentituko zara horregatik bai zeure buruarekin bai ingurukoekin.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Dagoeneko sartu da eguzkia Taurusen esparruan eta sekulako bizitasun fisikoaren jabe izango zara datozen asteetan; ez zara dudamudatan ibiliko helburuak argi eta garbi bait daukazu. Arrakasta ziurtatuta daukazu.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Intuizioa eta ekintza elkarlotuz gero, lagun edo ezkontidearekiko harremana finkatzea lortuko duzu Virgo. Lanbideak bidaia ugari egitea eskaintzen badizu, kontuz ibili, edota ebita ezazu.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Aste honetan ez duzu izango sormenerako gaitasun gehiegirik Neptunoren posizioak helburuen zergatia nahastuko bait dizu. Negoziok, erromantze eta pentsamenduekin ahalik eta zuhurren jokatzeko komenigarria litzateke.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Iraganaz oroitzea betegarria da, baina etorkizunaz gogoratzea ere komenigarria izaten da. Behar duzun denbora hartu benetan desiro duzuna zer den jakiteko.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Jatorra eta zorionekoa gainera den norbaitek harremanetan jartzeko edota ezkonbizitzan izpi berriren bat pizteko posibilitatea egon liteke Libra. Eutsi goiari.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Benetan desiro dituzun gauzak erosteko ordua iritsi zaizu Akuario, baina kontuz! Ez ibili gehiegikeriatan. Hainbeste espero izan duzun amodio hori egia bihurtu liteke.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Etorkizunerako eginbeharra aurrakusten dakizu eta borondate handiz arituko zara eskuartearen darabilzun zeregin horretan eta zorte ona izango duzu gainera.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Jende berri ugari ezagutuko duzu datozen asteetan eta zure gizalegeak markatzen duena adieraziko diezu; gogoko hartuko zaituzte horregatik.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Pakearen eta harmoniaren aldeko azalduko zara, baina ezin izango dituzu besteak eraman, zeureari eusten bait diozu beti; hotza eta autosufizientea izaten segituko duzu.

## EUSKAL FAMILIETAN

### IKASI !!

Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familietan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.  
Tfnoa: 79 09 00



# Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa  
1990-91 ikasturtea

Arrasateko Institutuak 1990-91 ikasturteko aurreinskripzio epea zabaltzen du.

## IKASKETA ESKAINTZA

---

Batxilergo 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
  - A. Zientzia arloa
  - B. Letra arloa
  - C. Zientzi-letra arloa
- U.B.I.:
  - A. Zientzia-teknologia arloa
  - B. Arlo bio-sanitarioa
  - C. Giza arloa
  - D. Linguistika arloa

## EZAUGARRI OROKORRAK

---

- Inguruko batxilergo eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3rak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

## EKIPAMENDUA

---

- Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritza laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

## AURREINSKRIPZIO EPEA

---

Maiatzaren 15etik 30era bitartean. Tfnoa: 79 44 47-37.

✓ **Matrikula dohainik**



WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU  
BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Educenfer. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edison, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Cami d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, P3, de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonquera**, Jonquera, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nervión**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Pza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4, Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18. T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Pza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafranca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, G. Gomis, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7. T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneris Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Sacerdos, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuenteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - **T. 928-76 66 53 - TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lugo**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge Maria, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Convento de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - **Nº 3**, Sor Angéla de la Cruz, 24 - **Nº 4**, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Gelafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascasles, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 4. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñoría, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondrágon**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G. C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposia**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Torosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bignorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alcira**, Pza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Pza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Lladio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

• HIRI BARNEKO ZERBITZUA

\* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)

\* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

• ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

\* Gau eta egun

• NAZIOARTEKO ZERBITZUA

\* Courier zerbitzua

\* Aire-karga zerbitzua

\* Itzulpen zerbitzua

ARRASTE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA

900 300 400



-ko kide



-ko kide